

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

## Makroa eta agian mikroa

**E**uropako BPG puntu batetik gora hazi zen 2010ean, baina desberdintasun handiak izan ziren estatutik estatura; Frantzia %1,5 hazi zen bitartean, Espainia %0,2 txikitzen zen. “Espainiako langabezi-tasa 2010ean azken 15 urteetako mailarik handienan dago”. “2010ean munduko batez besteko tenperatura 0,2°C hazi da”. Estilo honetako izenburuak irakurtzen ditugu egunkarietan eta entzuten ditugu telebistan, eta informazio-mota horiekin gure iritzia nahiz egoera animikoa baldintzatuta geratzen dira. Baina aipatutako izenburuak egia baldin badira ere, norberaren bizitzari dagokionez ez dira hain egiak.

“Euskadiren BPGa %0,2 hazi da 2010. urtean eta langabezia %2 hazi bada ere, Europako batez bestekoaren antzekoa da”. “Euskal Herria 2010. urtea hamarkadako hotzenetakoa izan da”. Azken esaldi hauek hurbilago daude gure errealitatetik aurrekoak baino, baina ezin uka guztiak egia direla.

Aipatu adibideak makro egoerak (Mundua, Europa, Espainia, Frantzia, Euskal Herria,...) adierazteko esaldiak dira eta makro datu horietaz baliatzen dira estatuak eta botere ekonomikoak, euren negozio-estrategiak bideratzeko garaian; gainera sinestarazten digute horrelakoa dela bizitza.



DANI BLANCO

Bestalde, jakin ongi dakigu norberaren biki-rik ez dagoela mundu osoan; ni hemen bizi naiz, horrela pentsatzen dut, senide hauek ditut, nire pentsamendua horrelakoa da, nire herria euria ari duen bitartean ondoko herria agian ez.; ni, ni naiz, ni mikroa naiz mundu honetan.

Mikroa gara, baina makroak agintzen du eta utzi egiten diogu agintzen. Makroak agintzen digu Iberiar penintsularen iparraldean, Bilbokoaz gainera, beste superportu bat ere behar dugula, Euskal Herria zikinkeriak ezabatzeko erraus-tegiak behar ditugula, Eusko Jaurlaritzako Zientzia eta Teknologiaren planak Europako makroidea multzoarekin osatu behar direla esatean. Mikroak agintzen digunaz ez gaude oso ziur, agian superportuen ordez portu eragin-korrakoak eta hobeto konektatuak, agian erraus-tegien ordez muturreko bir-ziklapena Zientzia eta Teknologiako planaren laguntzarekin.

Agian mikrotik sortutako ideiak, asmoak edo negozioak norberaren ekosistemarekin naturalago uztartuko dira eta ondorioz globalizazioaren bidez transmititu zaigun krisiaren eragina txikitzeko bidea izan dezakegu; agian mikroetan oinarritutako ekonomien bidez, munduko mikroen aurrean errespetua erakusten duen ekonomia globala sortu dezakegu, agian. ■

«  
Mikroa gara, baina makroak  
agintzen du eta utzi egiten  
diogu agintzen. Makroak  
agintzen digu Iberiar  
penintsularen  
iparraldean  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Motza pozarena. Realeko jokalarien herenak bat egin zuen presoen aldeko sosten-guan. Herriaren parte direnez, presoen artean senideak eta lagunak dituztela pentsatzeko ez da Einstein izan behar. Poztu egin ninduen berriak, zerranda horretan zeudenek baino ez zeudenek harritu nindutelarik, beste klubetakoek bereziki. Eta hainbatetan Realaren zuzendaritzak goratzen duen aldagelako giro elkarkoiaren oinarritzat jo nuen sinatzaileen lotsazko ausardia. Espainiako prentsak larrutuko zituela argi zegoen. Ez nuen zuzendaritzaren defentsarik espero, bainan Aperribayren erasoak, jokalariek publikoki

### Zein bide

kondenatzearena ere ez. Eta presidentek kontseilua ordezkatzen baldin badu, kontseilari guztiak berarekin ados baldin badira, arazo sakona du Realak gipuzkoarren kluba izateko. Urangak ekarri, eta Iribar eta Kortabarriak ikurrina atera zuteneko hartan, orduko zuzendaritzako bi ezagutzen ditut aurka zeudenak, gaur irudi harekin emozionatzen omen direnak. Baina orduan ez zuten aski indar izan hura kondenatzeko, nahiz eta beren ingurutan kirola eta politika ez zirela nahasi behar esan aho-bizarrez. Denbora gutxi barru oraingoak ere lotsagabeki presoen etxeraztea palkutik ospatzen ikusiko ditudala espero dut. Gora Realak nik ere, aldagelako herena buru. ■